# ZAINKETA
# EL CUIDADO

Gogoratu (begiratu) itzazu karta guztiak. Aukera itzazu gehienetan emakumeek eta gehienetan gizonezkoek egiten dituztenak. Idatz itzazu laukietan (ikus adibidea). Zergatik gertatzen da hori? Idatzi zure erantzuna.

Recuerda (mira) todos los naipes. Elige las que mayoritariamente realizan las mujeres y las que mayoritariamente realizan los hombres. Escríbelas en los recuadros (mira el ejemplo). ¿Por qué ocurre esto? Escribe tu respuesta.

## EMAKUMEEK EGINDAKOAK
## REALIZADO POR MUJERES

3.4 ospitaleko ohea
3.4 cama de hospital

Zergatik?
¿Por qué?

## GIZONEZKOEK EGINDAKOAK
## REALIZADO POR HOMBRES

11.2 segurtasuna/kamioia
11.2 seguridad/camión

Zergatik?
¿Por qué?

ISBN 10:84-89630-10-0
ISBN 13:978-84-89630-10-9

tratu txarrak / maltrato — NAHIKO! 3-4 — berdintasuna / igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna — EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo — GOBIERNO VASCO

IKASLEAREN KOADERNOA 1
CUADERNO DEL ALUMNADO

# ZAINKETA
# EL CUIDADO

UNIDAD DIDÁCTICA 1 UNITATE DIDAKTIKOA

IZENA:
NOMBRE:

**Lagun maitea:**

Ongi etorri Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako ikasleentzat **EMAKUNDEren NAHIKO** proiektura. Proiektu hau emakume eta gizonen arteko berdintasunerako hezkuntza programa bat da, neska eta mutilen arteko berdintasunerako. Berdintasuna eskubideetan, aukeretan, tratatzeko eran, arduretan... Berdintasuna denetarako bizitzan eta munduan, bizitzaren arlo guztietan eta munduaren alor guztietan.

Ikusten duzun bezala, gure logoa NAHIKO! hitzak bananduriko munduaren bi zatik osatzen dute. Munduaren ezkerreko erdia grisa da. Erdi hau tristea da, itzalia, bizirik gabea.

Gehienbat puntu gris edo beltzez osaturik dago. Puntu gris-beltz hauek desberdintasuna, diskriminazioa, injustizia, tratu txarrak, heriotza... adierazten dute. Badaude bizitzaz beteriko puntu urdinak ere, baina hain gutxi dira, kostata ikusten direla hauek. Emakume askori bizitzea egokitzen zaien mundua da hau.

**Puntu urdin eta gris** asko daude. Gure eguneroko bizitzan egiten ditugun ekintza txikiak dira, portaerak, hitzak, erlazioak, sentimenduak, sinismenak, eta abar. Etxean, eskolan, lagunekin, auzoan, kalean, enpresetan, telebistan eta prentsan, interneten, eta abar.

Horregatik, bi mundu hauek (puntu urdin eta gris hauek) leku guztietan eta pertsona guztiengan daude. Baita gure etxean, eskolan, auzoan, hirian, herrialdean... eta gutako bakoitzagan ere.

**Querida amiga, querido amigo:**

Te damos la bienvenida al **Proyecto NAHIKO de EMAKUNDE** para tercero y cuarto de Educación Primaria. Éste es un programa de educación para la igualdad de mujeres y hombres, de chicas y chicos. Igualdad de derechos, de oportunidades, de trato, de responsabilidades... Igualdad para todo en la vida y en el mundo, en todos los aspectos de la vida y en todos los aspectos del mundo.

Como puedes ver, nuestro logo tiene dos mitades del mundo separadas por la palabra NAHIKO! (¡BASTA!). La mitad izquierda del planeta es gris. Es una mitad triste, apagada, sin vida.

En su mayoría está compuesta por puntos grises y negros como la desigualdad, la discriminación, la injusticia, el maltrato, la muerte... También hay puntos azules llenos de vida, pero tan pocos que cuesta verlos. Es el mundo que les toca vivir a muchas mujeres.

Estos **puntos azules y grises** son muy numerosos. Son las pequeñas acciones, comportamientos, palabras, relaciones, sentimientos, creencias, etc. que tenemos cada día en nuestra vida. En casa, en la escuela, con las amistades, en el barrio, en la calle, en las empresas, en la televisión y la prensa, en internet, etc.

Por eso, estos dos mundos (estos puntos grises y azules) están en todas partes y en todas las personas. También en nuestra casa, escuela, barrio, ciudad, país... y en cada una y cada uno de nosotros.




NAHIKO programak **gure munduan dauden puntu urdin eta gris horiek zeintzuk diren ezagutzen lagundu nahi dizu**. Hauek nola eratzen diren eta nola alda daitezkeen ulertzea nahi du. Zeren eta, ikusiko duzun bezalaxe, pertsona bakoitzak eta guztion artean, puntu hauek sortzen ditugu eta berauek haziarazteko edota murrizteko gai gara.

Zuk ere egunero zure inguruan puntu hauek sortzen dituzu. Grisak ala urdinak dira? **Zuk ere aukera dezakezu zure inguruan puntu urdinak sortzea**. NAHIKO-k eginkizun honetan lagundu nahi dizu. Horrela, puntu urdinak hazi egingo dira eta gero eta gehiago izango dira. Gure mundua gure logoaren eskubiko erdia bezalakoa izango da, bizitzaz, alaitasunez, tratu onez, justiziaz, berdintasunez... beteriko planeta urdin bat izango da, emakume eta gizonentzako, neska eta mutilentzako, mundu hobeago bat.

Puntu gris arriskutsuak egongo dira, baina hain gutxi izango direnez, ez dira ia ikusiko eta puntu urdinez inguratuta egongo direnez, hauek neutralizatuko dituzte eta baita urdin bihurtu ere.

Izan ere, bi kurtso hauetan ikusiko duzun bezala, puntu grisak urdin bihur daitezke, eta baita urdinak gris ere. Duten berdintasunaren arabera aldatuko dute beren kolorea. Berdintasunik gabe, grisak dira. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna badago, urdinak dira.

**Berdintasunak bakarrik saihestu ditzake emakumeek gaur egun munduan jasaten dituzten injustizia eta tratu txarrak.** Berdintasunetik abiatuta bakarrik egin dezakegu planeta urdina, non emakume eta gizonak, neska eta mutilak, hobeto bizi garen, tratu onekin, justiziaz eta alaitasunez.



**Puntu urdinak sortu nahi al dituzu? Zatoz gurekin! Ondo pasa!**

El programa NAHIKO quiere **ayudarte a conocer cuáles son los puntos grises y los puntos azules de nuestro mundo**. Quiere que comprendas cómo se forman y cómo pueden cambiarse, transformarse. Porque, como verás, cada persona y todas conjuntamente, creamos y hacemos crecer o decrecer estos puntos grises y azules.

Tú también creas cada día a tu alrededor estos puntos. ¿Son grises o son azules? **Tú también puedes elegir y crear a tu alrededor puntos azules**. NAHIKO quiere ayudarte a hacerlo. De esta forma, los puntos azules crecerán y serán cada vez más numerosos. Nuestro mundo será como la mitad derecha de nuestro logo, un planeta azul lleno de vida, alegría, buenos tratos, justicia, igualdad... un mundo mejor para chicas y chicos, para mujeres y hombres.

Habrá algunos puntos grises peligrosos, pero serán tan pocos que casi no se verán y estarán rodeados de puntos azules que podrán neutralizarlos e incluso cambiarlos a azul.

Porque, como verás en estos dos cursos, los puntos grises pueden convertirse en azules y, también, los azules en grises. Depende de cuánta igualdad tengan. Sin ella, son grises. Con igualdad entre mujeres y hombres, son azules.

**Sólo la igualdad puede evitar y prevenir la injusticia y los malos tratos que sufren las mujeres en el mundo hoy en día.** Sólo con la igualdad podemos hacer un planeta azul en el que mujeres y hombres, chicas y chicos vivamos mejor, con buenos tratos, con justicia y alegría.

**¿Quieres crear puntos azules? ¡Acompáñanos! ¡Que disfrutes!**



# 1 JOLAS MOLAS
# JUGANDO, JUGANDO...

1. Unitate Didaktikoaren hiru jolasekin jolastu ondoren, ariketa hauek egin itzazu, jolasekin bizi eta ikasitakoa jasoz, hausnartuz eta osatuz.

Tras jugar en clase con los tres juegos de la 1ª Unidad Didáctica, completa estas actividades resumiendo, pensando y completando lo vivido y aprendido con los juegos.

## ZAINKETA
## EL CUIDADO

## NERE AUKERAKETA
## MI SELECCIÓN

Karta jolaseko 60 kartek 15 famili edo laukote ezberdin osatzen dituzte. **Aukera itzazu horietako lau familia** eskubialdeko laukietarako. Aukera itzazu zure ustez beharrezkoenak, garrantzitsuenak, espero ez zenituenak edo atentzioa gehien deitu dizutenak.
Goikaldeko laukian familiaren izena idatz ezazu, adibidez: "segurtasuna". Behekaldeko lerroetan berriz, zergatik aukeratu duzun familia hori.

La baraja tiene 60 cartas agrupadas en 15 familias o cuartetos diferentes. **Elige cuatro de estas familias** para los recuadros de la derecha.
Elige las que te han parecido más importantes, más necesarias, más inesperadas o las que más te han llamado la atención.
Escribe en el recuadro blanco su nombre, por ejemplo: "seguridad".
Escribe en las líneas de la parte inferior por qué has elegido esa familia.

| | |
|---|---|
| ............................................<br>............................................<br>............................................ | ............................................<br>............................................<br>............................................ |
| ............................................<br>............................................<br>............................................ | ............................................<br>............................................<br>............................................ |



# 3 MUNDUARI BEGIRA
# UNA VENTANA AL MUNDO



## ASTE HONTAKO PRENTSA
## LA PRENSA DE ESTA SEMANA

| Egunkaria Aldizkaria | Zainketari buruzko zenbat albiste | Zein orrialdeetan Zein neurrikoak |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| Prensa diaria Revista periódica | Cuántas noticias sobre el cuidado | En qué páginas De qué tamaño |

"Piramidea" jolaseko bost mailak kontutan harturik, nolako piramidea egiten dute albisteek (koloreatu maila bakoitzeko laukiak)? Egonkorra da?

Si tenemos en cuenta los cinco niveles del juego "La pirámide", ¿qué pirámide dibujan las noticias de prensa (colorea las casillas de cada nivel que creas adecuadas)? ¿Es estable?



# 4 INGURU-MINGURU
# VIVIENDO-CONVIVIENDO

## ZAINKETA ETA NI
## EL CUIDADO Y YO

Zainketa asko jaso ditut beste batzuengandik. Baina nik, zaintzen al ditut besteak? Eta nere burua, zaintzen al dut? Bi galdera hauek erantzuteko lotu itzazu zure izena eta irudiak, besteei eta zure buruari ematen dizkiozun zainketak irudikatzen dituzten irudiak bi kolore erabiliz.

He recibido muchos cuidados de otras personas. Pero ¿soy yo una persona cuidadora de los demás? Y de mí, ¿cuido bien de mí? Responde a estas preguntas uniendo tu nombre a las imágenes que recojan los cuidados que das a otras personas o a tu persona (utiliza dos colores).













IZENA:
NOMBRE:

























ISBN 10:84-89630-10-0
ISBN 13:978-84-89630-10-9

tratu txarrak NAHIKO! 3-4 berdintasuna
maltrato igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA — Organismo Autónomo GOBIERNO VASCO

IKASLEAREN KOADERNOA
CUADERNO DEL ALUMNADO
2

# ZAINKETA
# EL CUIDADO

UNIDAD DIDÁCTICA 1 UNITATE DIDAKTIKOA

IZENA:
NOMBRE:

## PIRAMIDEA
## LA PIRÁMIDE

## PIRAMIDEA ALDREBES
## LA PIRÁMIDE AL REVÉS

Hona hemen jolasean eraiki duzun piramidearen aurkakoa, piramidea aldrebes! Zer iruditzen zaizu?

**egonkorra da?**
**¿es estable?**

..........................................

**gerta daiteke gure gizartean?**
**¿puede ocurrir en nuestra sociedad?**

..........................................

**zergatik? nola? noiz?**
**¿por qué? ¿cómo? ¿cuándo?**

..........................................

..........................................

..........................................




Aquí tienes la pirámide que has construido en el juego dada la vuelta, ¡la pirámide al revés! ¿Qué te parece?

# SENA ALA HEZIKETA?
# ¿INSTINTO O EDUCACIÓN?

Jolasean erabili duzun dominoan bezala, irudi bakoitzari dagokion esaldi bat idatzi behar diozu, eta esaldi bakoitzari dagokion marrazki bat egin. Beti ere, zuk asmatutako zainketarekin zer ikusirik duten esaldiak eta marrazkiak erabiliz.

Como en el dominó con el que has jugado, debes escribir una frase adecuada para cada dibujo y dibujar una ilustración adecuada para cada frase. Utilizando siempre frases y dibujos inventados por ti y relacionados con el cuidado.

## DOMINOA OSATU
## COMPLETA EL DOMINÓ



Gizon askok nola egin ikasi du.

Muchos hombres han aprendido a hacerlo.

Eraikuntzak baino bertakoek ematen dute zainketa.

Más que el edificio, el cuidado lo dan sus habitantes.



Emakumeek ez dute hau egiteko gen edo berezko berezi bat.

Las mujeres no tienen un gen o instinto especial para hacer esto.







Ez dago emakume edo gizonek hau egin arazten dien generik.

No hay ningún gen que haga hacer esto a hombres o a mujeres.

# 2 KONTU-KONTARI
# CUÉNTAME UN CUENTO



## NORK BERE ARDURA
## RESPONSABILIDADES PERSONALES

| | |
|---|---|
| Erregea<br>El rey | |
| Erregina<br>La reina | |
| Printzea<br>El príncipe | |
| Printsesa<br>La princesa | |
| Zalduna<br>El caballero | |
| Anderea<br>La dama | |
| Aztia<br>El mago | |
| Sorgina<br>La bruja | |

Nolakoak dira betiko ipuin eta kondairen pertsonaiak zainketaren aldetik? Zertaz arduratzen dira? Osatu itzazu ondoko bi taulak, pertsonai bakoitzari bere zainketa ardurak idatziz.

¿Cómo se comportan los personajes de los cuentos y leyendas tradicionales respecto al cuidado? ¿De qué cuidados se responsabilizan? Completa estas tablas escribiendo al lado de cada personaje los cuidados de los que se responsabiliza.

| | |
|---|---|
| Morroia<br>El criado | |
| Neskamea<br>La criada | |
| Ehiztaria<br>El cazador | |
| Irulea<br>La hilandera | |
| Itsagizona<br>El navegante | |
| Sirena<br>La sirena | |
| Iratxoa<br>El duende | |
| Maitagarria<br>El hada | |

## EMAKUMEZKOA ALA GIZONEZKOA?
## ¿MUJER U HOMBRE?



| IPUINAREN ZATIA<br>FRAGMENTO DEL CUENTO | EMA/GIZ?<br>¿MUJ/HOM? | Zergatik?<br>¿Por qué? |
|---|---|---|
| "Artilea goruan iruten ari zen soldaduak sartu zirenean"<br>"Cuando entraron los soldados, estaba hilando lana en la rueca" | | |
| "Zaldia ondo eskuilatu ondoren, ferrak banan-banan begiratu zizkion"<br>"Después de cepillar bien el caballo, le revisó las herraduras una a una" | | |
| "Basoan bildutako senda-belarrak gehitu zizkion lapikoari"<br>"Añadió al puchero las hierbas medicinales recogidas en el bosque" | | |
| "Egunero zauria garbitu zion urez eta hezgailua aldatu zion"<br>"Le limpió la herida con agua y le cambió el vendaje cada día" | | |
| "Errautsak dena estaltzen zuen, erratza hartu eta eskobatzen hasi zen"<br>"La ceniza lo cubría todo, cogió la escoba y comenzó a barrer" | | |